

HEGOALDEKO MAHAI POLITIKOAREN ESPAINIAKO ESTATUKO EGOERARI BURUZKO IRAKURKETA

# Erregimenaren krisia, aukera politikoa eta gure erantzukizuna

Egungo egoera politiko-instituzionala ulertzeko, ezinbestekoa da 78ko Erregimenaren sorrera eta bilakaera kontuan hartzea. Espainiako Estatuan “trantsizio” deitu zen prozesuak ez zuen haustura demokratikorik ekarri aurreko erregimen frankistarekin. Aitzitik, estatu-aparatu nagusiek, botere ekonomikoek, epaileek eta segurtasun indarrek, monarkiaren aterkipean, jarraipen nabarmena izan zuten, benetako garbiketarik gabe. Horri gehitu behar zaio 78ko Erregimenak nazio auziak, bereziki euskal auzia, termino demokratikoetan behar bezala konpondu gabe utzi zituela. Euskal Herriaren zapalkuntza eta asimilazio nahia barne-barnean zituela abiatu zuen bere ibilbidea.

Frankismoaren erreformak bigarren fase bat izan zuen PSOE gobernura iristearekin. Garai hartan finkatu ziren Erregimenaren zutabe nagusietako batzuk: mendebaldeko egitura geopolitiko eta ekonomikoetan erabateko integrazioa, NATOren eta Europako Ekonomia Erkidegoaren bidez; eraldaketa ekonomiko gogorak, langile klasearentzat eta industria ehunarentzat ondorio sakonak izan zituztenak; eta euskal auziaren kudeaketa “pazifikazioaren” ikuspegitik, eta ez normalizazio demokratikoarenetik.

Horrela finkatu zen urte luzez Espainiako Estatu arkitektura politiko nagusia: bipartidismoa, monarkia, estatu-aparatuen jarraipena eta, une askotan, estaturik gabeko nazioetako eskuinekin egindako akordioak. PSOE Erregimenaren pieza nagusietako bat bihurtu zen, botere errealekin sinbiosian. Hala ere, Estatuaren muin sakonak beti izan du izaera erreakzionarioa eta atzerakoia. Benetako ugazaba eskuina izan da, eta ez-kerra, maizterra. Erregimenak onartu duen PSOE eredua 78ko markoa azken helburu politiko gisa barneratu duena izan da. Ez da kasualitatea, beraz, Felipe Gonzalez bera Erregimenaren defendatzaile eta bozeramaile nagusietako bat izatea gaur egun ere.

### **Krisietatik pitzadurara, pitzaduratik alarmara**

Baina Erregimenaren krisiak bata bestearen atzetik etorri dira hamarkadotan. Lurralde krisia, euskal eta katalan aldarrikapen nazionalen indarragatik; krisi instituzionala, monarkiaren eskandaluekin eta alderdi handien ustelkeriagatik; krisi ekonomikoak, Espainiako Estatuaren egitura produktibo desorekatuagatik; eta ordezkari-tza politikoaren krisia, hamarkadetan finkatutako bipartidismoaren higaduragatik.

Aurreko hamarkadan hiru fenomenok arrakala sakonak ireki zituzten Erregimenaren arkitekturan: 15-M mugimenduak eta Podemosen agerpenak; Kataluniako prozesu independentistak; eta Euskal Herrian ziklo politiko berriak, ezkerreko subiranismoaren indar metaketa eta EH Bilduren hazkunde instituzional eta soziala ekarri dituenak. Lehen bi fenomenoek atzeraldi nabarmena izan badute ere, haien eraginak eta Erregimenaren krisi estrukturalak panorama politikoa aldatu zuten. Kataluniaren kasuan, Estatuaren erantzuna guztiz esplizitua izan zen: 2017ko urriaren 3ko Felipe VI.aren diskurtsoak argi erakutsi zuen monarkiaren eta Estatu sakonaren lehentasuna zein den.

Bipartidismoaren hausturak egoera ezezagun batera eramane du azken zazpi urteotan Espainiako Estatu: Kongresuan gehiengo plurinazional eta aurrerakoi bat artikulatzeko aukera ireki da. PSOE taktizismoz mugitu da, ordea, eta oraindik ez du urratsa egin estaturik gabeko nazioak zalantzarik gabe onartzeko eta Estatuaren demokratizazioaren alde irmoki egiteko.

Hala ere, aldaketa demokratiko sakonak irudikatzeko aukera hutsak alarma guztiak piztu ditu botere errealetan. Aznarren esaldiak –“el que pueda hacer que haga”– argi bezain garbi adierazten du logika hori: erabilgarri dagoen botere bakoitzak bere eremutik jardun behar du, aukera politiko hori ixteko. Testuinguru horretan kokatu behar da azken urteotako ofentsiba judizial-poliziala.

Judikatura, Guardia Zibilarekin eta Estatuaren beste aparatu batzuekin batera, Erregimenaren berme nagusietako bat bihurtu da. Trantsizioan Armadari aitortzen zitzaion zaintza funtzioa, gaur egun, neurri handi batean, botere judizialak eta polizialak betetzen dute. Ez dute ustelkeriaren aurka modu neutroan jarduten; aldaketa sakonak ahalbidetu ditzaketen aukera politikoen aurka jarduten dute. Frankok hil aurretik Juan Carlos I.ari utzitako agindu politikoa bera da oraindik ere Estatuaren obsesio nagusia: Espainiaren batasuna.

### **Ustelkeriaren errealitatea eta egungo operazioaren benetako helburua**

Horrek ez du esan nahi ustelkeria kasuak gutxietsi behar direnik. Inondik ere ez. Ustelkeria egon da eta badago. Are gehiago, 78ko Erregimenaren beraren sorreran dago ustelkeria politiko eta instituzionalaren erroetako bat: hausturarik gabeko trantsizio batean, frankismoa sostengatu zuten botere ekonomiko, politiko eta instituzional asko “demokrazia” berriko zutabe bihurtu ziren. Alderdi askoren finantzaketa opakoak, enpresa handiekin egindako tratuak, eraikuntzaren inguruko sareek, klientelismoak, lagunkeriak eta entxufismoak bizitza politikoa degradatu dute, eta zerbitzu publikoen kalitatea ahuldu.

Horregatik, ustelkeriaren aurkako borrokak ezin du azalekoa izan. Ez da nahikoa usteldutako pertsonen aurka egitea; usteltzen duten egituren, sareen eta interes ekonomikoen aurka ere egin behar da. Ustelkeriaren aurka egitea klientelismoaren, lagunkeriaren eta entxufismoaren aurka egitea da. Politikara herria zerbitzatzera etortzen da, ez norbera zerbitzatzera. EH Bilduk harrotasunez esan dezake horrela aritu dela beti bere jardunean, bere printzipio politiko, etiko eta militanteei esker.

Egunotan ezagutu diren ustezko ustelkeria kasuek, errugabetasun-presuntzioa errespetatuta, erantzun sendo, argi eta estrukturala eskatzen dute. EH Bilduk zorrotz eta arduraz jokatu du eremu horretan. Baina, aldi berean, ezin dugu begirada lausotu. Batzuek hauteskunde orokorrak aurreratzea eskatzen dute, egoera “desblokeatzeko”. Baina serio hitz egin dezagun: norbaitek benetan uste al du ustelkeriaren alternatiba Feijooen gobernu bat dela, Voxen babesarekin? Norbaitek uste al du eskuinaren eta muturreko eskuinaren helburua ustelkeria sistemikoarekin amaitzea dela?

Helburua ez da ustelkeriarekin amaitzea. Helburua beste bat da: aukera-leihoa ixtea. Horretarako, “sanchismoa” delakoa suntsitu nahi dute, PSOE berriro inoiz atera behar ez zuen lekura eramateko: Estatuaren itunetara, bipartidismo politikora eta Erregimenaren egonkortasunera, alderdia bere biziraupena ere kinka larrian jarriko lukeen zeharkaldi gogor batera behartu ondoren. Horrela itxi nahi dute gehiengo plurinazional eta aurrerakoi batek 78ko diseinuan zintzilik geratu ziren aldaketa demokratikoak abian jartzeko aukera.

### **Gure eredia indartu, gure agenda garatu**

Egoera honetan, EH Bilduk azterketa hau partekatu nahi izan du bere kidegoarekin, behar diren zuhurtzia, erantzukizun eta exijentzia guztiekin. Bidegurutze guztiek arriskuak dituzte, baina baita aukerak ere. Gure zeregina argia da: autoritarismoari atea ixtea, ustelkeriaren eta klientelismoaren aurrean eredugarritasun politikoa sendotzea, Euskal Herriaren burujabetzan aurrera egitea eta eraldaketa sozial eta demokratikoa sustatzea.

Espainiako Estatuko krisiak ez du gure agenda ordezkatu behar. Alderantziz, krisi horrek are ageriago uzten du Euskal Herriak bere bidea egiteko beharra. Gure egitekoa ez da Madrilgo ziklo politikoaren menpe gertatzea –hark eragina izango badu ere, jakina–, baizik eta Euskal Herriatik aukera politikoak zabaltzea, burujabetzan urratsak egitea eta herri honen gehiengo sozialak antolatzea.

Indarra egin behar dugu gure eremu propioan hori dena garatzeko. Euskal Herria baita askapen nazionalerako eta sozialerako epizentroa. Bertan ari gara indartzen gure jarduna, hortik herri prozesu bat garatzeko, beharrezko adostasunak eta indar harremanak erdietsiz. Estatuko egoerari ere erreparatu behar diogu –dela aukerak aprobeztatzeko, dela oldarraldi autoritarioari aurre egiteko–, baina Euskal Herriaren agenda propioa lausotu gabe: herri honen eskubide nazionalak, eskubide sozialak, zerbitzu publikoak, berdintasuna, euskara eta bizi baldintza duinak erdigunean jarritz.

Etika, onestasuna eta herri honen zerbitzura egoteko konpromisoa izango dira gure iparrorratza. Hor dago EH Bilduren indarra. Eta hortik jarraituko dugu lanean.